



JUAN M. ESPINOSA / EFE

BBVAren akzioak %11,62 igo ziren atzo eta burtsako kapitalizazioa 795.000 milioi pezetatan handitu zuen.

BBVAk bere burtsako balioa %20 handitu du bi egunetan

Telefonicarekin egin aliantzak inbertsoreen babesa jaso du

Agentziak / Madril

BBVAk bere kapitalizazioa 795.000 milioi pezetatan handitu zuen atzo burtsan, %11,62ko igoera izan ostean. Inbertsoreek entitatearen eta Telefonicaren arteko aliantza saritu zuten horrela. Une honetan BBVAren burtsako kapitalizazioa orotara 7,63 bilioi pezetakoa da. Espainiako oposizioko alderdiek, berriz, bi erraldoien arteko aliantza lehiaren kontrakoa izan daitekeela salatu dute.

BBVAren akzioek sekulako hazkundea izan zuten atzo burtsan, merkatuak babesa eman baitzuten ostiralean entitateak eta Telefonicak iragarritako aliantzari. Inbertsoreek agertutako interesa zela eta Burtsetako Elkartek goizean entitatearentzako fluktuazio muga zabaldu egin zuen %25era. Horrela, BBVAren akzioek %20,11 balio

handitzea izatera iritsi ziren. Egunaren bukaera balio handitzea %11,63koa izan zen. Telefonicarekin aliantza sinatu ostean, beraz, une honetan BBVAren burtsako kapitalizazioa 7,63 bilioi pezetakoa da, atzo 795.000 milioi pezetatan igo ostean. Adituen ustez, Telefonicarekin egindako aliantzaz gain, BBV eta Argentariaren arteko fusioa-

ren abantailak ere orain erdietsi ditu entitateak. Telefonicak, berriz, %1,35eko jaitzierarekin itxi zuen atzoko eguna. Kontutan hartu behar da urte hasieratik hona multinazional honek %26ko igoera izan duela burtsan; adituen ustez hori da atzoko emaitzaren arrazoi nagusia.

Salaketak oposiziotik

Espainiako Gobernutik halakorik ukatu bazen ere, atzo PSOEtik hainbat salaketa jaso zituen BBVAren eta Telefonicaren arteko aliantzak, Aznarren exekutiboak akordioan eskuhartze zuzena izan duela esanez. Aliantza lehiaren kontrakoa izan daitekeela uste dute sozialistek.

Burtsa

• J.B. ANDUEZA •

Uriarte Shakespeare ote ?

San Balentin egunean Romeoren papera betetzea edonorentzat amets izan liteke, baita BBVArentzat (+%11,62) ere. Horrezaz gain, zure Julietta Telefonica (-%1,34) baldin bada, antzezlan honen Shakespeare, hau da, egilea Pedro Luis Uriarte dela pentsa liteke. Efektu kolpe latza eman dio Bilboko bankuak BSCHri (-%4,83), baina garbi

dago Europako bankuen artean bazkidetza onak dituela Santandergo bankuak ere. Hidrocantabrico (+%6,18), Telepizza (+%1,03) eta Terra (+%0,65) izan ziren Ibex-35aren barruan maitaleak izan zituzten bakarrak. Beste 30 akzioek galerak izan zituzten. Harrigarria da dirua nola pilatzen ari den hain akzio gutxitan.

Bilboko 2000 Indizea



Dibisen merkatua

	1 Euro
Pezeta	166,386
Libera	6,55
Dolarra (EEBB)	0,98670
Libra Esterlina	0,62010
100 Yen (Japonia)	1,0685

Beste indizeak

	* Eguerdira arte
New York (Dow Jones)*	10.537,52 (+%1,08)
Tokio (Nikkei)	19.556,46 (-%0,78)
Madrid (IBEX-35)	12.458,60 (+%0,21)
Paris (CAC-40)	6.268,32 (-%0,30)
Londres (FTSE 100)	6.145,60 (-%0,02)
Frankfurt (DAX-XETRA)	7.644,80 (+%0,40)
Milan (Mibtel)	32.836 (+%1,73)

laburrean

■ Tafallako Luzuriaga lantegiko langile batzordeak bilera eginen du gaur zuzendaritzarekin izan azken bilera baloratzeko

LAB, ELA, UGT, CCOO, Langileen Ahotsa eta CC sindikatuek osatu langile batzordeak bilera eginen du gaur 10:30etan lan hitzarmenaren inguruan enpresak joan den ostiralean eman erantzuna baloratzeko. Zuzendaritzak proposatu zien: 130 behargin gazteenak kaleratzea, eta urte honetarako hitzarmenean aurreikusten zen %2,9ko soldata igoera botatako beharginen sari ordaina ordaintzeko erabiltzea. Horregatik, iragarri mobilizazioekin jarraituko dute. Hilaren 21ean Arrasatera autobusez ibilaldia eginen dute. Otsailaren 24n berriz, itxialdia eginen dute Tafallako Udalan.

■ Eroskik mila milioi pezetako inbertsioa egingo du Zallan hipermerkatu bat eraikitzeko

ENKARTERRIETAKO eskualde osoari zerbitzua emateko asmoa duen hipermerkatu bat eraikitzeko mila milioi pezetako inbertsioa egingo duela iragarri du Eroski. Uda baino lehen jada martxan egongo den hipermerkatuaren eraikinak 5.000 metro koadroko azalera izango du. Horietatik 2.400 metro koadro izango dira hipermerkatuaren salmenta areto-rako. Eraikuntza, gaur egun dagoenaren ondoan egingo da, 350 aparkaleku hartuko diru eta merkataritza galeria txiki bat. Oraindik ez da zehaztu zenbat denda kokatuko diren galeria horretan.

■ Iberdrolako Injinerutza eta Aholkularitza atalak 1.045 milioi pezetako irabaziak izan zituen 1999an

IBERINCO Iberdrolako Injinerutza eta Aholkularitza atalak bere irabaziak %32 handitu zituen iaz, zerga aurretik 1.045 milioi pezetako mozkinak lortuz. Negozio zifraren hazkunde, orotara 16.859 milioi pezetakoa izan zuen, %50,4 hazkundearekin. Horrela, fakturazio bolumena kontutan hartuz, sektoreko bigarren enpresa izaten jarraitzen du Iberinco. Azpimarratu behar da negozio kopuruaren %15,3 atzerrian egindako proiektu eta lanetatik etorri zaiola Iberdrolako atal honi.

■ Arabako Parke Teknologikoak Aenor kalitate agiria jaso du

MIÑAOKO Parke Teknologikoaren izenean, bertako lehendakari Javier Fernandez de Retanak Aenorrek emandako ISO-9002 kalitate agiria jaso zuen atzo Luz Enparantza EAEko Aenorreko ordezkariaren eskutik. Gaur egun 41 konpainiek dute egoitza Arabako Parke Teknologikoan eta guztien artean 1.595 langile dituzte. Zabaldu zenetik, duela lau urte, Miñaoko parkea urtez urte hazten joan da. Horrela, iazko lehen sei hilabeteetako hazkundea %28 izan zen. Atzoko ekitaldian parte hartu zuten baita Parkeko Administrazio Kontseiluko kideek eta bertan egoitza dute enpresa guztietako ordezkariak.

■ Bilboko Frankizia-2000 feriak %10 bisitari gehiago izan ditu aurten

OSTEGUNETIK larunbatera Bilboko Erakustazokan egindako Frankizia-2000 feriak 3.889 bisitari izan ditu orotara, iaz baino %10 gehiago. Horietatik 2.478 negozio sistema honetan interesatuta agertu dire profesionalak izan ziren. Feria honetan 46 enpresek hartu dute parte, 36 erakustokitan banatuta.

■ **SABADELL** bankuak burtsan kotizatzen hasi nahi du, baina modu bixian: boto eskubiderik gabeko akzioekin soilik. CNMVk Espainiako gobernuaren esku utzi du erabakia.

■ **LA CAIXA** Kataluniako aurrezki kutxak %5,01eko partaidetza du Telefonican. Testuinguru berrian ordea, elkarte anonimoa ez direnez, kataluniarrek beteko duten papera zaila da finkatzen.